

Nafarroako Kanpoko Ebaluazio Estandarizatuak

BANAKAKO EBALUAZIOA

Lehen Hezkuntzako 3.a

2018-2019 ikasturtea

Jarduketen protokoloa

Uztailaren 16ko 60/2014 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duenak, 11. artikuluan agintzen duenaren arabera, Lehen Hezkuntzako hirugarren ikasmaila amaitzean ikasle guztiei banakako ebaluazioa eginen diete ikastetxeek. Horren bidez, ahozko eta idatzizko adierazpenean eta ulermenean, kalkuluan eta problemak ebaztean behar diren trebetasunak, ahalmenak eta abileziak zer mailatan menderatzen dituzten egiaztatuko da, hizkuntza komunikazioko gaitasunari eta matematika gaitasunari dagokienez.

Uztailaren 2ko 350/2018 Ebazpenak jarraibideak onesten ditu ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2018-2019 ikasturtean arautzeko eta, era berean, ezartzen du Hezkuntza Departamentuak jarraibideak emanen dituela proben aplikazioa eta zuzenketa arautzeko.

Ikasturte honetan, ebaluazio horren barnean eginen diren kanpoko probek ondoko oinarritzko gaitasunak ebaluatuko dituzte:

- Hizkuntza gaitasuna: irakurmena eta idazmena, gaztelaniaz zein euskaraz, ikaslearen hizkuntza ereduaren arabera.
- Matematikako gaitasuna: kalkulua, arrazoibidea eta problemen ebazpena.
- Ingeleseko hizkuntza gaitasuna.

Aurreko ikasturtean bezala, 2018-2019 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3.eko banakako ebaluazioaren probak ikastetxeen eskura jarriko dira apirilaren 29tik Departamentuaren web-orrian (<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/evaluacion-y-calidad>), PDF formatuan zein Word formatuan, eta borondatez erabili nahi dituzten ikastetxeek autonomia izanen dute horiek aplikatzeko, moldatzeko (handitzeko, egokitzapen metodologikoak egiteko eta abarretarako), egutegia antolatzeke, zuzentzeko, emaitzak aztertzeke eta abarretarako. Datuak ez dira sartuko Educa aplikazio informatikoan eta ikasleek ez dute galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala *online* egin beharko. Ikastetxeek erabaki horiek hartuko dituzte, aintzat izanik ebaluazio honek prestakuntza eta orientazio izaera duela, eta ikastetxean aurrera eramaten dituzten ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuen barnean txertatuko dute. Hobekuntza Planaren esparruan, ebaluazio honetan ikasleek lortutako emaitza orokorreari zer tratamendu eman ere erabakiko dute ikastetxeek eta, behar den hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak proposatuko dituzte.